



Urteurren bikoitza, Santa Zeziliaren bezperan

Udal Musika Eskolako Bandak 25 urte bete ditu, eta Udal Musika Eskolako Abesbatzak 10. Emanaldi gogoangarria eskaini zuten Basteron / 13

Euskaraldia

Andoaingo Euskaraldia Batzordeak amaiera-ospakizuna antolatu du, abenduaren 2rako / 6-10

**Indarkeria
matxistaren aurkako
eguneko ekitaldiak,
Andoainen
eta Urnietan / 15**

**Iruñean ospatuko den
Bertso Txapelketako
finalera busez
joateko aukera,
Aiurriren eskutik / 5**

<http://rikardoarregikazetaritzasaria.eus>

**RIKARDO ARREGI
KAZETARITZA
SARIA 2022**

SARI BANAKETA EKITALDIA

Kazetaritza eta Komunikazio
ataletako sariak ezagutzera
ematearekin batera, ohorezko
mugarri bana emango zaie Elizabete
Garmendiari eta Patxi Baztarrikari.

*hitzen
jostunak*

Eguna: Azaroak 30, asteazkena.
Ordua: Basteroko ateak 18:50ean
itxiko dira, eta ekitaldia 19:00etan
hasiko da.
Lekua: Andoain, Bastero Kulturgunea.

FINALISTAK

Kazetaritza Saria

Amaia Lekunberri Ansolak ekoiztutako
Anorexia, bestelako gerturapen bat. Zer
dio jateari uzten dionak, jateari uzten
dionean? izeneko **Larrun** monografikoa.

ETBren **ASKE BIZI** dokumentala.

Miel A. Elustondok **BERRIA** egunkarian
argitaratutako **Tonban** ehortzirik
erreportaje sorta.

ETBren **BIBA ZUEK** magazina.

Komunikazio Saria

enpresabidea.eus

Aiaraldea komunikazio proiektua

Ajora **Probatxo**

aikotaldea.eus





Iazko Komunikazio ataleko saridunak eta finalistak. AIURRI

Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien edizio berria

Ekitaldia Bastero Kulturguneko Auditorioan izango da, azaroaren 30ean, iluntzeko 19:00tan hasita

Erredakzioa ANDOAIN

Aurtengo 8 finalisten artean bi irabazleak iragarriko dira: Kazetaritza arlokoa eta Komunikazio arlokoa.

Kazetaritza Saria

- Amaia Lekunberri Ansolak ekoiztutako "Anorexia, beste-lako gerturapen bat". Zer dio jateari uzten dionak, jateari uzten dionean? izenburuko Larrun monografikoa.
- ETBren "Aske bizi" dokumentala.
- Miel A. Elustondok Berria egunkarian argitaratutako

"Tonban ehortzirik" errepor-taje sorta.

- ETBren "Biba zuek" magazina.

Komunikazio saria

- enpresabidea.eus webgunea.
- Aiaraldea komunikazio proiektua.
- Aiora Probatxoak Youtuben duen jarduera.
- aikotaldea.eus, Aiko Dantza taldeak sorturiko komunikazio proiektua.

Omenaldia

Elixabete Garmendia eta Patxi Baztarrika omenduko dituzte.



Maider Lainez, PSE-EE. AIURRI

PSE-EEko alkategai izango da berriro Maider Lainez

Ostegun honetan, Maider Lainez Lazkoz Andoaingo PSE-EEko buruzagiak alkatetzarako hautagaitza aurkeztu du. Alderdiak antolatutako ekitaldia izango da. Laugarren hauteskunde-zikloari ekingo dio modu horretan, Udal ordezkari gisa. 2011-2015 agintaldian, zinegotzi izan zen, Estanis Amuchastegui idazkari orokorra zela. 2015ean, alkategaia izan zen, eta bigarren alderdi bozkatuena izan zen. 2019an, ere bigarren hautagai bozkatuena izan zen eta EAJ-PNVrekin lortutako akordioari esker, alkatetzari dagokion aginte-makila bereganatu zuen.

Lainezen helburua, ezin bestela, alkatetzan jarraitzea izango da.



Verdasco, Lainez eta Iparragirre aurkezpen-ekitaldian. AIURRI

Aurrekontu parte hartzaileen bozketaren berri eman dute

Udal Liburutegiari, bizikleta bideei, zebra-bideei, lan munduratzeari eta irisgarritasunari lotutako ideiak dira

Erredakzioa ANDOAIN

Udalak 2023ko Aurrekontu Parte-hartzaileen hirugarren fase honen emaitzen berri eman du. Maider Lainez alkateak agerraldian adierazi zuenez, "254 boto jaso dira guztira, horietatik 198 baliozkoak. Herritarrek Andoaini eragiten dioten erabakietan inplikatu eta parte hartu nahi dute". Sei proposamen garatuko dituzte. Hauexek:

- Juan Bautista Erro-Kale Nagusian dauden zebra-bide arris-kutsuen beharren azterketa eta beharrezko diren hobekuntzak martxan jartzea.

- Ondarreta kalea berritzeko hirigintza egitasmoa.
- Olagain auzoa eta Joakin Larreta Kaleberriarekin lotuko dituzten ibilbide irisgarriak oinezkoentzat egokitze egitasmoa.
- Lan munduratzeari, ikastaroak sortzea, praktikak eta enplegua lortzeko aukerak bideratzea, batez ere emakumeei.
- Udal Liburutegia larunbat eta igande goizetan zabaltzea.
- Andoaingo bizikleta bideen plan berezia garatzea.

Partida 250.000 eurokoa da.

Haurren eskubideen eguna

Andoaingo Udalak haurren eskubideekiko etengabeko konpromisoa adierazi nahi du. Argitara eman duten adierazpenaren hainbat pasarte, jarraian. "Andoaingo Udalak haurren eskubideak bermatzen dituen gizartea sustatu nahi du, ez etorkizun gisa, baizik eta egungo errealitate gisa. Entzuteko espazioak eta horien protagonismoa sustatzen ditugu, eta haien ekarpenak kontuan hartzen ditugu. Hezkuntza, parte-hartzea eta ingurune seguruak sortzea, berez eskubideak izateaz gain, horiek bermatzeko ezinbesteko bitartekoak direla uste dugu".



Herritarren proposamenak aurrekontuan txertatuta

Udal aurrekontuko 150.000 euro bideratuko dira, herritarrek egindako hainbat proposamen bideratzeko. Partida handiena pantaila akustikoena izango da, A15 autobideak egiten duen zarata saihesteko asmoz

Erredakzioa URNIETA

Udaberrian, bide zein plazetan hobekuntzak proposatzeko nahiz ideia berriak emateko aukera izan zuten Urnietan eroldatutako hamasei urtetik gorako biztanleek. Gutxieneko irizpideak beteta, 221 proposamen hartu dira aintzat. Prozesu orokorretik at, Egape Ikastolako eta Magale ikastetxeko ikasleek ere parte-hartze aktiboa izan dute prozesuan. Bestalde, Urnietako Udalak herritar guztien eskura utzi du proiektuaren emaitzak biltzen dituen txostena, aurrekontu irekien partaidetza-prozesuari buruzko informazio guztiarekin. Bertan, prozesuaren

laburpena, 150.000 euroekin gauzatuko diren proiektuen gaineko edukia eta onartu ez diren proposamenak alde batera uztearen arrazoiak daude. Beraz, interesa duten herritarrek Udalaren web orriaren bidez eskura dezakete informazio hori guztia. 2023. urtean, aurrekontu irekien harira, honako hauexek herrian izango diren hobekuntzak:

Pantaila akustikoak, A15 autobidean

Pantaila akustikoak jarriko dira autobideko ibilgailuen joan-etorriak sortzen duen zarata murrizteko.

Komun publikoa, Berrasoeta parkean

Aski erabilia da astebarruan nahiz asteburuetan Berrasoeta parkea. Bada, komun publikoa ipini nahi da bertatik gertu, hainbat herritarrek hala eskatuta.

Parkean berrikuntza

Alariku parkeko egoera hobetuko da eraberritze-lanen ondorioz. Gainera, orain gutxi luizia izan zen bertan, eguraldi kasikarra eta euri-jasak medio.

Burnibide parkeko futbol-zelaia

Burnibide parkean dagoen futbol zelaiko belar artifizialean



Segurado eta Pagola, aurkezpen-ekitaldian. AIURRI

hondar asko dago eta esku hartuko da eremuko egoera hobetzeko.

Berrasoeta parkeko eskilarak

Berrasoeta parkeko txirristarren ondoan dauden eskaileretan baranda bat ipiniko da bertatik igotzen edo jaisten direnek helduleku bat izan dezaten.

Berrasoetako futbol-zelaiaren hobekuntza

Berrasoeta parkeko futbol zelaiko lurrian koska dezente daude eta zorua berdindu egin

go da lurraren egoera hobetzeko.

Bizikletak uzteko gunea, kiroldegian

Kiroldegi parean, edo, bertatik gertu, bizikletak uzteko gunea bat ipiniko da.

Urnietako Udalak aditzera eman duenez azken lau neurriak LH 6. mailako ikasleekin izandako prozesuaren ondorioz gauzatuko dira. Partida ekonomiko txikikoak dira, baina erabilgarritasun handikoak.

Modu askotan esan daiteke EZ, baina modu bakarrean ulertu.

SOILIK BAI DA BAIETZ.

azaroak **25** Emakumeen kontrako indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

900 840 111 DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



IRITZIA

ESTI MUJIKATOLARETXIPI ANDOAINGO EHBILDUKO KULTURA ARLOKO ARDURADUNA

Gure herriko kantutegia eta historia osatuz

Azaroa musikarekin lotu izan dut beti, Santa Xexili eguna azaroaren 22an ospatzen delako eta testuinguru horretan emanaldi berezi ugari izaten direlako.

Aurtengoan, Andoaingo ospakizun bereziak aurreko asteburuan hasi ziren: Alberto Agirre abesbatzaren 40. urtemuga ospakizunekin; asteburu honetan, aldiz, Basteron kontzertu berezi batez gozatu dugu: Musika Eskolako Bandak 25 urte bete dituelako eta Musika Eskolako Abesbatzak, berriz, 10 urte. Horrela esanda, zenbaki hutsak dirudite, baina ez: benetan ospakizun garrantzitsuak dira gure herriarentzat eta kulturarentzat.

Nire bizitzan txikitatik ezagutu dut Alberto Agirre Abesbatza; familikoen parte-hartzearen aitzakiarekin gerturatzen ginen hasieran. Baina makina bat kontzertuz gozatzeko aukera izan dugu; ez soilik kontzertuetan, txiki-txikitatik herrian antolaturiko ekimen eta jaialdi askotan ere entzun ditugu kantuan.

2019ko Xexili eguneko ospakizunetan, Udaletik omenaldia egin genion Alberto Agirre Abesbatzari, eta bertan esan genuen bezala, ezin aitortu gabe utzi kantuan

hiru hamarkada pasatxotan nekaezin ari zen taldea. Omenaldi horretan hainbat taldek hartu zuten parte, eta nola diren gauzak: han izan ziren Musika Eskolako Banda eta Abesbatza, eta aurtan hiru taldeek ospatzen dituzte urteurrenak.

Asteburu honetako ospakizun kontzertuan burutik kendu ezinik aritu naiz zein garrantzitsua den 40 urte bete dituen abesbatzaren erreferentzia izatea, kantuzaletasuna bultzatzen jarraitzeko eta talde berriek ere bidea egiten jarraitzeko. Ez soilik kantuzaletasuna; askotan aipatzen dugu Andoainen musikari, musikazale eta musikagile asko eta onak ditugula eta horren adibide izan da asteburu honetako kontzertua ere.

Garrantzitsua da musikaren kalitate eta mailaz harago, talde eta partaide hauen guztien ahaleginari esker, musikak gure bizitzetan egiten duen ekarpenaz jabetzea. Ezingo nuke irudikatu herri honetako jai edo ospakizunik musikarik gabe. Ezingo nuke irudikatu San Juan gaueko surik ederrena urtez urteko soinu bandarik gabe eta seguru nago andoaindar orok pentsatzen duela hori.

Alberto Agirreren omenaldian erabilitako hitz batzuk ekarri nahiko nituzke gogora Musika Eskolako Banda, Musika Eskolako Abesbatza eta Alberto Agirre Abesbatzari gure eskertza eta aitortza egiteko.

Doinu ezberdinekin gure belarriak goxatu, ahots eta instrumentu ezberdinak elkartu, batak bestea entzun eta azkenean armonia egoki batekin entzuleei oparitzen dizkiezuelako.

Historiak kontatzen dizkiguzue kantuen bitartez, eta ondoren guk, zuengandik jasotako kantu asko eta asko, kantatzen eta kontatzen dizkiegu. Zuen grinari esker gure memorietatik hurrengo belaunaldietaraino iristen dira, gure herriko kantutegia eta gure herriko historia osatuz. Guzti honengatik jarrai dezazuela urteak ospatzen eta gure herriaren nortasuna egiten, kultura herriaren nortasuna baita.

Zorionak eta eskerrik asko musikari guztiei! Gora Santa Xexili!

**EZINGO NUKE
IRUDIKATU HERRI
HONETAKO JAI EDO
OSPAKIZUNIK
MUSIKARIK GABE**

POSTONTZIA

ANDOAINGO ASANBLADA FEMINISTA ANDOAIN

Manifestazioa, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira

Andoaingo Mugimendu Feministak, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunerako manifestazio deialdia egiten du. Azaroaren 25ean, ostirala, Zumea plazan arratsaldeko 18:00ean da hitzordua eta Goikoplazan bukaera emango zaio.

Nazkatuta gaude urtero salaketa eta aldarri berdinak egiteaz, indarkeria matxistak bere horretan jarraitzen duen bitartean.

Aurtan, bereziki, Mugimendu Feministaren kriminalizazio saiakera sistematikoa nabarmendu nahi dugu, eraso hauek emakumeon eta sexu-genero disidenteon borroken eta bizitzan kontrola lortzea baino ez baitute helburu, bai indar polizialen zein instituzioen aldetik! Algotako Mugimendu Feministako bi kideen auziperatzearekin gertatu den bezala. Gure elkartasuna helarazten diegu, eta ozenki esan nahi dugu, autodefentsa feministak ematen digun indarrarekin batera, elkar zaintzea eta babestea dela bidea!

Neska* gazteongan ere, indarkeria matxistak gure gorputz eta bizitzetan eragiten du: gure ingurunearen ongizatea bermatzen dugu, gure lagunen sostengu psikologikoa betetzen dugu, gure lagun gizonak zaintzen ditugu, lan prekarioetan eta kontratu gabe lan egiten dugu, eta abar luze bat...

Horregatik, Emakume eta sexu-genero disidenteon bizitzak egunero kolpatzen dituen indarkeria anizkoitzekin amaitzeko ordua da. Baina eraldaketa gure esku dago eta ardura denona da. Honenbestez, feminismoan kolektiboki borrokatzen jarraitu behar dugu. Soilik borrokatuz, elkar saretuz zein antolatuz posible baita aurrera egitea. Gure desioak eta gorputzak gure bizitzaren erdigunean jarri behar ditugu indarkeria matxista eta sistema zisheteropatriarkalarekin bukatzeko.

Beldurra eta Kontrolaren aurrean, Justizia Feminista!
Antolakuntza feministan botereku gaitezen!
Sistema honetan elkar zaintzea erradikala delako!
Indarkeria matxistaren aurrean, Autodefentsa Feminista!

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



• Iritzia
• Postontzia

KOMUNITATEA

EH BILDU ANDOAIN

N1-aren arazoari irtenbide jasangarri eta orekatuena zein den aztertzeko diru partida

EH Bilduk N1-aren arazoari irtenbide jasangarri eta orekatuena zein den aztertzeko 476.000 euroko diru partida bat adostu du 2023rako Espainiako Estatuko aurrekontuetan.

Euskal Herria Bildu Talde Parlamentarioak akordioa lortu du Espainiako Gobernuarekin, hainbat proposamen adostu ondoren, eta horrenbestez PSOE eta Unidas Podemoseko gobernuak aurrekontuak aurrera atera ahal izango ditu.

Akordio horren barruan, EH Bilduk Andoaingo herriarentzat estrategikoa den N1-aren arazoari behin betiko irtenbidea emango dion proiektu egokiena izango dena aztertzeko 476.000 euroko diru partida bat adostu du Espainiako Gobernuarekin.



AIURRI

Lortutako partida honekin, EAJ-PNV-k eta PSE-EEk Bidegiren bitartez Andoaingo herriaren borondatearen gaitetik inposatu nahi duten proiektuari alternatiba landu ahal izango zaio. Andoaingo EH Bildutik duela bi hilabete proposatu genuen

ibilbidearekin jarraitu behar dela uste dugu: Aldundiak Bidegiren bidez aurkeztu duen CII proiektua gelditzea, Andoaingo Udalak ordezkaritza anitzeko lan mahai bat martxan jartzea lortu duen diru laguntza eta azterlana aurrera eramateko eta marko bilateral bat sortu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin alternatiba adosteko. Lortu dugun diru partida honen bidez, Andoaingo mahaia martxan jartzeko aitzakiarik ez du udal gobernuak.

LORTUTAKOAREKIN, ANDOINGO MAHAIA MARTXAN JARTZEKO AITZAKIARIK EZ DU UDAL GOBERNUAK

KOMUNIKATUA

DEIADAR ELKARTEA ANDOAIN

DEIadar elkarteak ez du Piano Jaialdiaren 18. edizioa antolatuko




AIURRI

Egoera aztertu ondoren, DEIadar elkarteak ez du Piano Jaialdiaren 18. edizioa antolatuko. Ibilbide luzea izan da, eta Euskadiko piano-jotzaile ikasle guztiei eman zaie aukera, musika eskoletako, kontserbatorio profesionaletako eta Musikeneko ikasleei, piano jaialdian parte hartzeko; ekitaldian pedagogia eta musika uztartu dira pianoaren inguruan.

Azken edizioetan, Udalaren dirulaguntza hitzarmen baten bidez ixten zen, aurrekontuan jasotakoari jarraiki. Justifikazio-dosierra oso zorrotza izan da, eta ekitaldiaren kostuak esleitutako dirulaguntza gainditzea eragin du, osorik ez finantzatzeara eraginez. Gai horrek zer egin planteatzea eragin du.

Ez da Piano Jaialdiaren hurrengo edizioa egingo.

Andoainen elkarte gehiago ari dira antzeko egoerak pairatzen, eta horregatik, elkartasuna adierazten diegu elkarte horiei guztiei. Jarrai dezagun kultura egiten, oso beharrezkoa da gizarte osasuntsu baterako.



Eman izena
Aiurriko egoitzan:
Arantzibia plaza, 4-5
behea. ANDOAIN

BERTSO TXAPELKETAKO FINALA, DATORREN ABENDUAREN 18AN IRUÑEAN

Aiurrik autobusa antolatu du, gurekin joan nahi?

Prezioa: 15 euro.
Aiurriko harpideduna bazara: 10 euro.





**egunean
behin**

Hamargarren denboraldia abiatu da

- "Aiurri" taldean astero zozketa egingo dugu: **KMO produktuez betetako otarra.**



SKARALDIA

ASPILLA

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Elektropottotte elektrotxaranga Zumea kaleko Gaztelutxo tabernaren aurrealdean. AIURRI

Busti egin beharra dago, euskararen alde ekiteko

Euskaraldiarekin bat egin zuten herriguneko hainbat tabernari, Pintxopottotte izeneko ekimenean. Musika eta pintxo-potea uztartu zituzten, Elektropottotte musika talde berriaren izenetik abiatutako hitz-jokoa eginez

Erredakzioa ANDOAIN

Bidasoa aldeko Burrunba elektrotxarangarekin abiatu zen ospakizuna. Eskarmentu handiko dozena bat musikari hurbildu zen Andoainera, maila handiko saioa eskainiz. Haien sorterriari ohore eginez, Sorotan Bele, Kortatu eta Joxe Ripiau taldeen bertsioak jo zituzten. Bastero kafetegiaren aurrealdean

ekin zioten emanaldiari, Juanta Alkain plazaratxoaren arkupeetan jarraitzeko. Ordu eta laurdeneroko emanaldia Kale Nagusian amaitu zuten, Irunberri tabernaren estalkia baliatuta. Tresneria handi samarra erabili ohi dute, iluminazioa eskainiz eta hainbat instrumentu elektrifikatuz. Eurria zela eta, babeserik gabe zuten, ezinbestean.

Irunberriko saioa amaitu eta lekukoa hartu zuen Elektropottotte taldeak. Txindoki eta Gaztelutxo parean lehen kantuak eskaini eta gero, Zumea plazako gunee estalian egin zuten amaierako saioa. Euriaren igaroaren ondoren, horregatik, beharbada ez zen jendetza ibili ostegun arratsaldean. Baina bertan izan zirenentzat festa polita izan zen.

Burrunba eta Elektropottotte



Elektrotxarangen inguruan jende asko batu zen Kale Nagusian. AIURRI

Kalegiroa Eguraldia petral samarra bazen ere, musikaren doinuak atzetik ibili zen hainbat herrikide. Talde handiak izanik, eta tramankulu asko erabiltzean, kalean aritu ziren kantuan.



Itxaso Sanchez andoaindarra. AIURRI

Elektropottotte Andoainen eskaini zuten lehen emanaldia, eta haiek zuzenean ikusteko gogo berezia zegoen. Haien etxeko eta lagun ugari bertaratu zen. Euskal kantutegian oinarritu zuten saioa.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza:

Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzailak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Urdieta).

Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



Urdieta

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



andoaINDARRA
euskaraz



Iñaki Eizmendi eta Mikel Urdangarini batu zitzairen Joseba Egibar. BATZOKIA



Elkartea bete egin zen, kantu-bazkarirari eta mahai-inguruan. BATZOKIA



Sebastian Lizaso. ETB

Abenduaren 2ko bertso afarirako txartelak agortu dira

Iker Zubeldia eta Sebastian Lizaso kantuan ariko dira, Euskararen Egunaren bezperan

Erredakzioa ANDOAIN

Koronabirusari lotutako garai zailak alde batera utzita, Andoingo Kale Nagusiko Santa Krutz Peña elkarteak garai bateko ohitura berreskuratu du. Andoingo Euskara lansailaren babesarekin bertso-afaria antolatu du. Datorren ostiralean izango da, 20:30ean hasita. Dagoeneko salmentara atera zituzten txartel guztiak agortu dira. Kantuan ariko dira bertsozaleen artean estimazio handia duten Iker Zubeldia eta Sebastian Lizaso. Belaunaldi ezberdinekoak izanik ere, eskarmentu handikoak dira biak.



Campos, Olaizola eta Erkizia.

Meritua

Bapo bazkaldu zuten Batzokian, aurreko larunbatean. Juntakideena izan zen meritua. Orduak eman zituzten lanean hainbat lagun, bezperan hasita.

Kantuan eman zuten arratsalde osoa

Batzokiak kantu bazkaria antolatu zuen, Euskaraldiarekin bat eginez. Ekimena iragarri zutenetik erantzun bikaina jaso zuten elkarteko bazkideen eta herrikideen aldetik, txartel guztiak saldu zituztelako. Ia lau orduz kantuan aritu ziren

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Egun hauetan norbanako ugari bat egiten ari da Euskaraldiarekin. Gure hizkuntzan aritzeko pertsonak behar dira, eta baita guneak ere. Santa Krutz Peña edo Batzokia elkarteek urrats bat harago eman eta ekitaldi bana antolatu dute. Abenduaren 2an bertso afaria izango da Santa Krutz Peñan.

Ospakizuna egindakoak Batzokikoak izan dira. Bertako talde eragileak kantu bazkaria antolatu zuen, eta hitzorduak dozenaka lagunaren arreta bereganatu zuen. Bapo bazkaldu eta gero (endibiak, onddoak, bakailaoa, bizkotxoa...), kantari jardun zuten, Iñaki Eizmendi eta Mikel Urdangarini musikarien gidaritzapean. Haiei batu zitzairen

Joseba Egibar, akordeoiarekin. Hiruren artean, giro ederra sortu zuten Batzokian. Ia lau orduz aritu ziren kantuan, gustura zeudenaren seinale. Liburuxka banatu zuten bertan izan zirenen artean. Kantu herrikoiak, Lete eta Iriondo, Pantxoa eta Peio... Euskal kantutegia zabala da eta haietako hainbat pieza ezagun aukeratu zituzten.

EUSKARALDIA IKUSBERAN. HITZEZ, JOLASTUZ ETA IRRI EGINEZ EKITEKO GARAIA DA



Rol ezberdinetan aritu dira ehunka andoaindar, egun hauetan. AIURRI

Amaierako ekitaldia Goikoplazan, abenduaren 2an

Andoaingo Euskaraldia bi hitzordu seinalatuen artean igaroko da. Azaroaren 17an, Pintxopottotterearekin abiatu zen, eta datorren abenduaren 2an amaierako ospakizunarekin amaituko da. Karpa eta guzti jarriko da, Goikoplazan

Erredakzioa ANDOAIN

Bakoitza bere roletik, eta taldean arituz, Euskaraldia aurrera doa. Pintxopottotterearekin abiatu zen Andoainean, joan zen ostegunean. Euskaraz eroso aritzeko ehundik gora arigune dago Andoainean, eta askoz gehiago dira ahobizi eta belarriprest roletan euskaraz bizitzen ari direnak. Lantokian, eskolan, merkatalgunean... Hamabost eguneko ariketa datorren abenduaren 2an amaituko da eta Andoaingo Euskaraldia Batzordea data seinalatu horri begira dago. Pintxopottottea Kale Nagusian eta Zumea aldean egin ostean, oraingoan ospakizuna Goikoplaza aldean izango da. Euriaren beldurrik ez izateko karpa bat ezarriko da, eta, bertan, arratsalde-iluntze gozoa igarotzeko aitzakiarik ez da izango. Dantza, musika eta mufina jateko aukera paregabea izango da.

Goikoplazan jarriko den karpako egitaraua

Egitaraua ia-ia osatuta badago ere, azken orduko berrikuntza-zen bat izan daiteke. Beraz, adi, hurrengo egunetako komunikazioei. Nolanahi ere, bi orriotan agertutakoaren arabera, ospakizun betea izango da. Arratsaldeko 18:00tan abiatuko da eta, besteak beste, Klaapeko dantza eskolako kideak, Egape Dantza Taldeko gazteak edota Beietz! musika taldea ariko dira. Ezin ahaztu ere Lebiton konpartsaren eskutik iritsiko den zezen-suzkoa. Urriaren 31n, Gau Beltzan, bertan behera geratu zen, euri-jasa medio, eta hitzordu berrirako prest eta gogotsu daude konpartsako kideak, baita Andoaingo hainbat eta hainbat haur ere.

Adi, beraz, datorren abenduaren 2ari. Euskaraldia ospakizun betean amaituko da.



Eskuz egindako muffinak dastatzeko aukera egongo dira. WIKIPEDIA

Muffinak Euskaraldiaren karpan

Gozoa izango da, literalki, Euskaraldiaren agurreko ekitaldia. Atzean geratu dira aurkezpen-festaren bokata-afaria, Gau Beltzaren txokolate beroa, gaztainak zein talo-jatea eta Pintxopottotte ospakizuneko pintxoak eta edariak. Datorren ostiralean muffina janez agur esango diogu Euskaraldiari. Zapore eta osagai ezberdinez egindakoak izango dira aukeran. Merienda edo askaria eginez abiatuko da ospakizuna, eta jarraipena emango zaio dantzarekin eta musikarekin.



Nafarroako Arbizukoa da Beietz! musika taldea. BEIETZ

Zeltik parranda Beietz! taldearekin

Bibolin, txirula eta trikitixak sortutako melodia zelta itsaskor eta biziek osatzen dute Beietz!-en bizkar hezurra. Horri rock, punk, ska edo folka gehituz dator Beietz!-en zeltik-parranda. Beietz! 2018an Arbizon (sortutako taldea da. Zazpikoteak ilusio handiz jaso du egokitu zaion erronka: Euskal Herriko toki guztiak zeltik-parrandaz bete. 2019ko urte amaieran taldearen lehenengo diskoa kaleratu zuten, "Errailetatik" izenekoa. Maiatzean bigarren diskoa argitara eman zuten, "Askatu Aingura" izenburupean.



Lebi zezen-suzkoa. AIURRI

Zezen-suzkoa

Arrakasta handiz ospatu zen Gau Beltzan andoaindarren aurrean atera ezinik geratu zenez, egun hartan bertan Larramendi Kultur Bazkunak erabaki zuen abenduaren 2ko ospakizunera atzeratuko zela Lebi zezen-suzkoa. Lebiton konpartsakoak prest izango dira Euskaraldiaren ospakizunean parte hartzeko. Beti ere eguraldiak laguntzen badu, noski. Beraz, haur eta gazteak, adi ibili, gure artean berriro ariko baita zezen-suzkoa.

Ospakizuna, karpa barruan

Goikoplazan karpa jarriko da, abenduaren 2an bertan. Arratsaldean hasi eta gaua iritsi bitarte, Euskaraldiaren azken eguneko ospakizunak bertan egingo dira. Zezen-suzkoarena alde batera utzita, hori kanpoan egingo baita. Euritik babeteko aukera izango dute, beraz, datorren ostiralean ospakizunera hurbiltzen direnak.

Txapa, soinean

Goikoplazan ipiniko den karpa Arigune erraldoia izango da, euskaraz eroso aritzeko espazioa. Garrantzi handikoa izango da txapa soinean eramatea. Ahobizi nahiz belarriprest, guztiak elkartzeko asmoarekin antolatuta da festa. Ezer izan baita Euskaraldia, ariketa kolektiboa izan da. Euskara mihian eta belarrian, ospakizun polita izango da.



Azaroaren 5ean Euskaraldiaren dantza aurkeztu zuten. AIURRI

Egape dantza taldea

Euskaraldiaren kantutik abiatuta, koreografia sortu dute Urnietako dantzari gazteek. Urnietan plazaratu ondoren, andoaindarren aurrean dantza hori eta beste bi dantza gehiago eskainiko dituzte.



Klaapeko kideak, Basteroko grabaketan. AIURRI

Klaap dantza eskola

Euskaraldia abiatzearekin batera, Aiurri.eus bidez zabaldu zen Klaap dantza eskolako kideek prestatu zuten koreografia. Bideoak arrakasta handia izan du, eta Goikoplazan zuzen-zuzenean ariko dira.



Sorpresa ugari izango da Goikoplazako zozketan. AIURRI

Zozketa berezia

Arratsaldea borobiltzeko, ospakizunean parte hartzen dutenen artean zozketa berezia antolatuko da. Beraz, adi, ospakizunera hurbiltzen dena sari eta guzti etxeratuko baita!

Mihia zorrotz, belarria fin ari dira Urnietan

Antxo eta Pantxa pailazoekin, hitzordua izango da hilaren 2an, Euskaraldia amaitzen den egunean. Era berean, biharamunean, ekitaldia antolatu dute Kantazaunek eta Egape Dantza Taldeak, Euskararen Eguna ospatzeko

Erredakzioa URNIETA

Belarriak finduta, mihia zorrotz-tuta eta euskaraz aritzeko gogoz dabilta makina bat herritar Euskaraldian. Bada, motibazioa pizteko proposamena izateaz gain, hizkuntza gutxituaren erretratu bizkorra egiteko parada ematen du ariketak.

Hala, lehen edizioarekin alde-ratuta, jaitsi egin da parte-hartzea Urnietan, Lide Serrano herriko koordinatzaileak dioenez: "Gazteen kasuan, beste lehentasun batzuk dituztela nabari da; euskara ez dute lehen lerroan ipintzen". Hari horri tiraka, garbi ikusi du haurren artean duen arrakasta. Horrela, ekimena medio sortutako hitzorduek ere harrera ona izan dutela dio, euskarazko yoga klaseek, esaterako. Halaber, hilaren 2ra arte egongo da aukera "Tik Tokaldian" parte hartzeko

Txanponaren beste aldean, badira euskalgintzari lotutako hainbat eragile Urnietan, eta,



Euskararen egunean emanaldi berezia eskainiko dute elkarrekin Kantazaun taldeak, Txanbolin txistulari bandak eta Egape Dantza Taldeak. AIURRI

urteko gainerako egunetan bezala, euskaraz bizitzeko bermearen alde ari dira orain ere lanean. Biziki poztu du Serrano, ariketa sozialaren erdian, beren eskuetatik iritsi zaion proposamenak: Euskararen Egunean,

ekitaldia antolatu dute, Kantazaun elkarteak eta Egape Dantza Taldeak, eguerdiko 12:00etan.

Hala, bezperan, Antxo eta Pantxa pailazoak izango dira, kiroldegian, arratsaldeko 18:00etan.



EGAPE

Egape Ikastola, arnasgune

Lehen aldia du Egape Ikastolak arigune gisa Euskaraldian. Hori horrela, konpromiso zorrotza ari dira erakusten erronkarekin, bai irakasleak, bai ikasleak. Hala, hamabostalditik at, ariketa bera hasi baino lehen ere buru-belarri aritu dira lanean, hitzez ekiteko garaia dela aldarrikatzeko.



MAGALE

Magalen, lehen hitza euskaraz

Euskarari bultzada emateko espazio bihurtu da Magale ariketa sozialaren erronkari eutsita: arigune rolean, hizkuntzari bultzada emateko ardura erakusten ari da. Makina bat ekintza egiten ari dira ikastetxeko txikiekin, baita hausnarketarako espazioak sortu ere nagusiagoekin. Euskararen Egunean emango diote amaiera ariketari, ospakizun batekin.



Euskaraldiaren berri izaten ari zara, irakurle, **Aiurri.eus** webgunean

Deialdiak, argazkiak, bideoak, albisteak.

BIZI EUSKARALDIA!

www.aiurri.eus

"Tik Tokaldia"-n parte hartzeko aukera luzatu dute

Abenduaren 2ra bitartean izango dute herritarrek 'Tik Tokaldia' lehiaketan parte hartzeko aukera. Azaroaren 18an hasi zen Euskaraldiaren hirugarren edizioa, eta horren harira sortutako ekimena da, 13 urtetik gorako gazteei begira. Nola parte hartu, baina? Euskaraldiaren hirugarren edizioako kantaren zati bat abestu eta dantzatu beharko dute eta publikatzerakoan ondorengo helbideak eta traolak jarri beharko dituzte: @euskaraldia.urnieta #Euskaraldia2022 #HitzezEkiteko #Aho-bizi #Belarriprest #Arigunea #Lorpen #Erronka.

Lehiakide guztien artean, sari eder bat zozkatuko da.



Urnietako
udala



Jon Imaz, Eva Pelaez, Aitor Sarasola, Jokin Igarritz eta Joxean Alberdi prestatzaileak korrikalariekin batera. ZUMEATARRA

Txingudiko negu krosean aritu ondoren, Oriora begira daude

ATLETISMOA Zumeatarra atletismo taldean martxan da berriro haur eta gaztetxoek taldea

Xabier Lasa ANDOAIN

Zumeatarra atletismo elkarteak kideak pozik itzuli ziren aurreko igandean Txingudin ospatu zen neguko krosean parte hartu ostean. Alebin eta infantil mailako bederatzi lagunek parte hartu zuten, hauek: Iñigo Lertxundi, Ainhoa Herrero, Odile Igarritz, Iker Garcia, Hanna Flores, Oinatz Zatarain, Julen Vicente, Jokin Sanchez eta Hugo Blanco.

Joxean Alberdi Zumeatarrako kideak, andoaindar gazteen par-

taidetza azpimarratu du, “kontuan hartuta aurreko urtetan gazterik ez dela joan Zumeataratik, badauzkagu arrazoiak soberan pozik egoteko. Egundoko ilusioarekin joan ziren, gainera, denboraldiko lehenbiziko lasterketara. Gozatu zutela esango nuke, nahiz eta ibilbideko zati luzea lokatzetan egin behar izan”.

Abenduaren 6an, Orion izango dute bigarren goizko lasterketa, eta hitzordua noiz iritsiko irrikitan daude korrikalari gazteak.

Pala txapelketa mistoa, larunbat honetan

Irunberri elkarteak antolatuta, Aita Larramendi ikastolako frontoian (10:00). Izen-ematea, elkartearen bertan.

Neguko ligako jardunaldia, larunbat honetan Allurralden

Larunbatean 15:30ean hasiko da. Antolaketa jendea behar dute. 15:00tan elkartuko dira, Allurralden bertan.



Idoia Moreiro. UKE

Senior mailako nesken garaipena, ezinbestekoa

Orio bigarren sailkatua garaitu zuen Urnieta Quel Abogados taldeak, aurreko jardunaldian

Erredakzioa URNIETA

Emakumezko senior taldeak Orio Eskubaloia bigarren sailkatua garaitu zuen (24-23) partida parekatu eta zirrargarri batean. Lehen zatian urnietarrak izan ziren markagailuan aurrea hartu zutenak (13-11, atsedendian), baina bigarren zatian oriotarrek lehia berdintzea lortu zuten. Urnietarrak sailkapeneko seigarren postuan dira, lidergotzan dagoen Eibarrendik 3 puntura. Partida bat gutxiago jokatu dutenez, aukera handiak dituzte sailkapenean gorago egiteko. Kadete mailako neskak ere garaile izan ziren, Aiala garaitu ostean (14-28).



Xabier Salillas, aurreko asteburuan. AIURRI

Aurrera Markelekin elkartearen aldeko asteburua, borobila

ELKARTASUNA Harrera ederra izan zuen aurreko asteburua elkarteak antolatutako egitarau mardulak

Erredakzioa URNIETA

Iragan asteburuko eguraldi askarra ez zen oztopo izan asteburu berezia gauzatzeko: ostiral arratsaldetik igandera bitarte, korrika nahiz bizikletan ibili zen Xabier Salillas kirolaria, Markel Carmona urnietarrari elkartasunez.

Bada, erronka handia gertutik jarraitzeko, makina bat ekintza prestatu zituen elkarteak: jolas kooperatiboetatik hasi eta musika-kontzertuetara bitarte, guztia GNA01 gaixotasunaren harira, babes ekonomikoa bilatzeko, ondoren, ikerketara nahiz terapiara bideratzeko.

ANTOLATZAILEAK POZIK DAUDE USTE ZUTENA BAINO JENDE GEHIAGO HURBILDU ZELAKO

Bihotza beteta dute antolatzailerik taldeko kideek, horrenbesteko lanak eta ahaleginak bere emaitza izan duela ikustean. Haien esanetan, “aurreikusten zena baino jende gehiago” agertu zen hitzorduetara, eta oso babestuak sentitu ziren: esaterako, arrakastatsuak izan ziren larunbat arratsaldea nahiz gaua, baita amaiera-ekitaldia ere; elkarteak adierazi duenez, oso hunkigarria izan zen guztia. Orain, biharamuneko aje emozionalari eutsi behar, antolaketan lan sakonak eta hiru egunetako intentsitateak eragindako nekearen ondorioz.

JASOTAKO DIRUA IKERKETARA NAHIZ TERAPIARA BIDERATUKO DU ELKARTEAK

AZAROAK 26 LARUNBATA
16:30ETIK AUERRERA

1. PARTIDIA 35 TANTO
ZALDUA II • MARTIRENA
LOITEGI • ODEI

BINAKAKO PARTIDIA 40 TANTO
GOIKOETXEA V • BARRENETXEA IV
SEGUROLA • LARRAÑAGA

3. PARTIDIA 40 TANTO
ANSA II • ZALDUA
ALABE • JUANENEA

ERREMONTEA TXAPELKETA 2022

BINAKAKO **Orona**
Fundazioa

GALARRETA JAI ALAI HERNANI

ORIA MENDI **ERREMONTEA BIZIRIK** **PAPELERA GUZPUECOANA DE ZUMARRAGA, S.A.U.** **SUKIA** **K** **AIURRI**



Leire Elizegi, Amagoia Mujika, Peio Manterola eta Agurtzane Solabarrieta aurkezpen-ekitaldian. AIURRI

Sarearen zuloak ehuntzeko ariketa

“Munduak guztiontzat beharko luke, baina ez da” liburua argitaratu berri du Bizipoza elkarteak: Amagoia Mujika kazetari nahiz idazleak josi ditu hitzak, Peio Manterola ikerlari andoaindarraren lana abiapuntu

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN
Zergatik ez da mundua denontzat? Nori dagokio guztiontzat den mundu bat eraikitzea? Zer falta zaio munduari guztiontzat izateko? Nork eta nola egiten da lan zulo horiek estaltzeko? Eran-tzunez baino, galderez betetako liburua aurkeztu berri du Amagoia Mujika Telleria kazetari eta idazleak: “Munduak guztiontzat beharko luke, baina ez da”. Peio Manterola Pavo irakasle eta ikertzaile andoaindarrak botatako amuari tiraka ondu du Mujikak liburua, izan ere, azken horren ikerketetatik nahiz hausnarketetatik abiatutako hitzak dira: “Bizipoza egitasmoa: Euskal Herriko haurren eskubide-egoera gizarte eta hezkuntza ikuspegi batetik”. Azaroaren 14an aurkeztu zuten Usurbilgo

Potxoenea Kultur Etxean. Lanaren egileez gain, bertan izan ziren Agurtzane Solabarrieta Mesa Usurbilgo alkatea eta Leire Elizegi Beloki proiektuaren sorkuntza-prozesuan berebiziko garrantzia izan duen Bizipoza elkartearen koordinatzailea.

Jendarteko hutsuneen jostunak
Joxe Garmendia EHUKo irakaslearen proposamenez murgildu zen Bizipozaren bidean Manterola, orain hiru urte, 2019an; ondo baino hobeto gogoratzen du proiektuaren muina: “Beharra dagoelako sortzen dira elkarteak”. Baieztapen horren hariari tiraka osatu du denbora honetan guztian ikerketa, badi-relako “erakunde publikoetatik bermatzen ez diren hainbat premia”. Elkarrekin dute hitza iker-

ketan: lan teoriko potolo baten ondotik, hutsuneak identifikatzeko mapa jantzia osatu zuen makina bat elkarteren dinami-ka jarraituta, ikuspegi holistikoa bat bermatze aldera. Galdetegi kualitatiboen bitartez, bakoitzaren beharrak, gauzatutako ekimenak, boluntarioen lana nahiz arazoak ikertu dira. Finean, jendartean, “elkarrekin duten ezinbestekotasuna” argitara eman du txostenak.

Hala, lan mardul eta sakon horren ideia esanguratsuenak jendarteratzeko ariketan, laburpen gisako liburua argitaratu du Mujikak, nolabait, bere “galbahetik” igarota: “Peioren lanak hari mataza asko ditu, eta, nik, neure modura josi ditut”. Elkartasunari, boluntariotzari nahiz enpatiari garrantzia ematen die

kazetariak, baina horien guztien aurretik, haren ustez, bada narmendu beharreko ideia bat, justizia soziala: “Hori betetzen den garaian, gainerako elementuak jendartea dotoretzeko hariak izango dira, baina, behin oinarria ziurtatuta”.

Elkarrengandik oso gertu dauden hiru erpineko triangelua osatzen dute Bizipoza elkarteak, Manterolak eta Mujikak, aipatu aldean arteko elkarrengandian ereindako uztaren adibide baita obra. Era berean, inflexio puntua ere delakoan da Elizegi elkartearen koordinatzailea, izan ere, haren aburuz, etorkizunari begira, “elkarrengandian ibilbidea markatzeko oinarri sendoa” da, sinetsita baitago posible dela guztiontzat beharko lukeen mundu hori eraikitzea: “Instituzioak, elkarteak, herritarrak, gizarte eragileak... Elkarrekin eraiki dezakegu komunitatea”.

Hausnartzeko, partekatze eta eraldatzeko

Larunbat honetan egingo diren Bizipoza jardunaldien atariko ekimena izan da liburua aurkeztzea: “Zaintza-sistema publiko komunitarioaz: elkarrekin partekatzen, hausnartzen eta eraldatzen”. Usurbilen izango da hitzordua, eta ez omen da zoria bertan antolatu izana, alkatearen hitzetan, lan handia egiten delako herri bizigarri baten alde, “herrikideak zainduko dituen komunitatea sortzeko bidean, bestelako zaintza ekosistema bat eraikitze borondatez”.

Hori horrela, liburua eskuragarri egongo da jardunaldietan, eta, bertaratzen direnei banatu egingo zaie. Bestalde, Durango-ko Azokan, Bizipoza elkartearen txokoa, salgai egongo da, baita elkartearen webgunean ere.

Liburua, nondik norakoak

Bizipoza osatzen duten elkarteentzat lurra ez da beti samurra, beraientzako sarea gaixotasunek edota beharrek urratuta dagoelako. Baina, oso garbi daukate beren haurrek ez dutela, etengabe, lurrera begira joan behar, lasai begiratu behar dutela aurrera edo gora. Horregatik, etengabe sarea josten eta josten aritzen dira, orratzak hatzak hamaika aldiz ziztatu arren. Neketsua da, baina beharrezkoa. Horregatik gailentzen zaie bizitzeko poza.

Premiatik sortutako elkarteak dira, irabazi asmorik gabekoak eta iniziatiba solidariotik jaiotako. Gizarte zerbitzu publikoek betetzen ez dituzten beharrak samurtzeko sortuak dira. Legeak garbi esaten du marjinazioari eta eskusioari ez zaiola irtenbiderik topatu orain artean, eta, desparekotasun sozial horren aurrean, ezinbestekoa da gizarte-ekintzako eragileek egiten duten lana. Munduak guztiontzat beharko luke, baina ez da. Liburuan, zergatik ez den ulertu nahia dago; nori dagokio guztiontzat den mundua eraikitzea? Zer falta zaio munduari guztiontzat izateko? Nork eta nola egiten du lan zulo horiek josteko? Nolako hariz?





Udal Musika Eskolako Banda, eta atzean Udal Musika Eskolako Abesbatza. AIURRI

Sorioneku, Banda eta Abesbatza

Hogeita bost urte bete ditu Mikel Emezabalek zuzentzen duen Udal Musika Eskolako Bandak, eta hamar Katrin Iturraldek zuzentzen duen Udal Musika Eskolako Abesbatzak. Emanaldiaren eta ospakizunaren argazkiak eta bideoak ikusgai daude Aiurri.eus gunean

Xabier Lasa ANDOAIN

Santa Zeziliaren egunaren atean, urteurren borobilerara iritsi diren bi taldeek emanaldia egin zuten Bastero Kulturguneko auditorioan. Atzera begira jarrita, ibilbide oparoa gauzatzen ari dira musikariak zein kantariak. Eta hori jardunean erakutsi zuten, kontzertuaren kantu ugari elkarrekin eskainiz. Udal Musika Eskolako Bandak eta Abesbatzak, elkar hartuta, pieza ugari eskaini zituzten. Bideoan ikus eta entzun daitezke, Aiurri.eus webgunean, hauexek: Mikel Laboaren "Txoria txori", Buena Ventura Zapirainen "Txanton Piperri", Jose Uruñuelaren "Euskal Musikaren Gorespena" edota Inaki Urkizuren "Kantaldia". Ikusgai dago ere Beethovenen 5. sinfonia, Bandaren eskutik.

1997an abiatu zen Udal Musika Eskolako Banda

Ibilbidearen errepasoa egin zuen Txitxu Ruiz zinegotziak, emanaldiaren hasieran. Garai hartan zinegotzi zen Garbiñe Egibar gogoan hartu zuen, eta baita Garbiñe Agirre kultur teknika-

ria ere, ahaztu gabe agintaldiz agintaldi Kultura Saila kudeatu duten pertsonak. Ibilbide osoan zehar berrehun musikari inguru pasa da Bandatik. Mikel Emezabal da azken urteotako zuzendaria, baina ez zituzten aurretik ardura berean izandakoak ahaztu nahi izan. Bandaren ibilbidean Aitor Gaston, Gorka Mujika eta Mirari Irurtzun aritu dira zuzendari lanetan.

2012an abiatutako Abesbatza Katrin Iturralde aipatzea ezin bestekoa da, haren eskutik abaitu zelako haur eta gazteen abesbatza. Eta beranduxeago iritsi zen helduena. Falta direnak gogoan hartuz, txalo zaparrada jaso zuten protagonista guztiek. Emanaldiagatik, eta ibilbide oparoagatik.

Gora Kaletxiki Banda

Larunbat honetan, azaroak 26, Gora Kaletxiki Bandak Santa Zeziliako emanaldia eskainiko du Kale Nagusiko Santa Krutz elizan. Iluntzeko 20:00tan hasiko da emanaldia.

Urteurren bikoitza



Emezabal eta Iturralde. AIURRI

Txaloak Lore-sorta bana jaso zuten bi zuzendariak, Txitxu Ruiz zinegotziaren eskutik. Hauek gogoan hartu zituzten euren esanetara dauden musikariak zein abeslariak.



Udal Musika Eskolako Abesbatzak lore-sorta jaso zuen. AIURRI

Abesbatza Ibilbide dotorea osatzen ari dira Katrin Iturralderen zuzendaritzapean. Belaunaldi ezberdinen topagune bilakatu da, hamarkada honetan.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 24

ANDOAIN Erakusketa

Udane Juaristi artistaren eskutik.
Azken eguna: Azaroak 26.

URNIETA Ikus-entzunezkoa

"Fabricando mujeres 2.0
¿Consumimos violencia?".
18:30, Sarobe.

OSTIRALA 25

ANDOAIN Tailerra

Txapa tailerra.
17:30, Gazte Lokala.

ANDOAIN Manifestazioa

Asanblada Feministak antolatuta.
18:00, Zumea plaza-Goikoplaza.

ANDOAIN Omenaldia

Indarkeria matxista pairatu duten
emakumeei omenaldia.
19:00, Goikoplaza.

ANDOAIN Kontzertua

Anari kantariaren emanaldia.
20:00, Bastero.

URNIETA Ikus-entzunezkoa

"Fabricando mujeres 2.0
¿Consumimos violencia?"
dokumentala.
18:30, Sarobe.

LARUNBATA 26

ANDOAIN Tailerra

Autodefentsa feminista.
09:30-15:00, Allurralde.



Klaap dantza akademiako kideek emanaldia eskainiko dute Goikoplazako karpan.

ANDOAIN Euskaraldiaren azken festa, Goikoplazan

Azaroaren 18an hasi zen ariketa kolektiboa, eta datorren abenduaren 2an emango zaio amaiera. Andoaingo Euskaraldia Batzordea azken ospakizuna antolatzen ari da. Xehetasunak 2-3. orrialdeetan.
Abenduak 2, ostirala. 18:00tan hasita.

IGANDEA 27

ANDOAIN Haur antzerkia

Munduari itzulia 80 egunetan.
12:00, Bastero.

ASTEARTEA 29

URNIETA Antzerkia

"Magma mia", Beatriz Egizabalen
eskutik.
19:00, Sarobe.

OSTIRALA 2

ANDOAIN Ospakizuna

Euskaraldiaren azken ospakizuna.
18:00, Goikoplaza.

ANDOAIN Antzerkia

"Altsasu".
19:00, Bastero.

ANDOAIN Bertso-afaria

Lizaso eta Zubeldia kantari.
20:30, Santa Krutz Peña.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO


La maternal
Lar., 26. 19:30,
22:00.
Ig, 27. 19:30.
Aste, 28. 19:30,
22:00.
(Ikuslearen eguna).

Parque salvaje
Lar., 26. 17:00.
Ig, 27. 17:00.

URNIETA

SAROBÉ

**Fabricando
Mujeres 2.0**
Ostg, 24. 18:30.



SINOPSIS



La maternal

Zuzendaria, gidoia: Pilar Palomero. **Aktoreak:** Carla Quilez, Angela Cervantes, Jordan Dumes, Pepe Lorente, Olga Hueso, Ruben Martinez, Gal-la Sabate, Neus Pamies. **Herrialdea:** Espainia (2022). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, nerabeak, amatasuna. **Iraupena:** 122 min.

Adin txikiko amak, pantaila handian

Carlak 14 urte ditu. Gazte desafiatzaile eta errebeldea da. Herri baten kanpoaldean dagoen jatetxe zahar batean bizi da, bere ama ezkongabearekin. Eskolara joan beharrean, bere lagun Efrainekin pasatzen ditu orduak. Gizarte-langilea haurdunaldiaren bosgarren hilabeteen murgilduta dagoela konturatzen denean, Carla 'La Maternal' n sartzten da, ama adingabeentzako zentro batean. Gune hartan bera bezalako

beste gazte batzuekin partekatzen du bere egunerokotasuna. Euren umeei batera, prestatzeko astirik eman ez dien helduen mundu berriari aurre egingo diote.

Donostiako Zinemaldian aurkeztu zen filma, Sekzio Ofizialean. Txalo zaparrada jaso zuen ikusleen aldetik, eta sari banaketa ekitaldian Carla Quilezek aktore onenaren saria eskuratu zuen.

"Sendabelar baratzea" Garbiñe Larrearen liburu berria

Larunbat honetan, Hernaniko Kulturarteko Plaza Feministan aurkeztuko du goizeko 11:00etan hasita

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

"Sendabelar baratzea" obra plazaratu du berriki, Argiaren eskutik. Iaz argitara eman zuen "Sendabelarrek dakitena: eza-gutu, bildu eta erabili" liburua-ren ondotik dato berriena.

Baratza du abiapuntu Larrearen lan berriak, eta, Argiak egindako elkarriketa batean azaldu bezala, sendabelarren balio terapeutikoak, gastronomikoak nahiz kosmetikoak zabaltzea du xede: "Landareen

balio horiek ezagutzea eta norberak kudeatzen duen lur eremu batean kokatzea da planteamendua, eta honek autonomiaren bidea sakontzen du". Hori horrela, sendabelarrak erdigunean ipintzeko borondatea izan du autoreak, aldizkariari azaldu lez, eta, zehatz-mehatz, "elkarrekin ondo moldatzen diren" hamabi sendabelarrek osatzen dute liburuaren bizkarrezurra. Besteak beste, Malba landare basatiak. Hernanin aurkeztuko du, larunbat honetan.



Garbiñe Larrea, iaz argitara emandako liburu eskuetan duela. AIURRI



2019ko ekitaldia, Urnietan. AIURRI

Hitzorduz beteriko egitaraua Urnietan, datozen egunetan

Elkarretaratzea deitu du Urnietako Udalak, ostiral honetan, San Juan plazan, 18:00tan hasita

Erredakzioa URNIETA

Hamaika ekitaldi antolatuta dira Urnietan, azaroaren 25aren bueltan, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta. Hori horrela, bezperako ekintzari jarraipena emate aldera, Setem Hego Haizearen eskutik antolatutako "Fabricando Mujeres 2.0" zine-foruma, elkarretaratzea egingo da ostiralean bertan. San Juan plazan biltzeko deia egin du Urnietako Udalak, eta, bertan, adierazpen instituzionalaren irakurketa egingo dute.

Askotariko hitzorduak

Hilaren 29an, asteartearekin, iluntzeko 19:00tan, "Magma Mia" bakarrikzeta taularatuko du Saroben Beatriz Egizabal aktoreak. Hona dio, labur, bere sinopsiak: "Haserre nago, sutan nago, irakiten nago... Presio gehiegi eta zulo guztiak itxita

mantentzeko hezi naute. Sumendia lehertzeaz dago...". Hamasei urtetik gorako herritarrei begirako ikuskizuna da, eta gonbidapenak, doan, lehenagotik eskuratu beharko dira, Saroben bertan edo Bibe plataforman.

Bestalde, "Mutil berdinzelek haztearen erronka" hitzaldia gidatuko du Ibai Fresnedo ekin-tzaileak eta Iruki Larrosa talde eragileko kideak azaroaren 30ean, asteazkenean, Lekaioko areto nagusian, arratsaldeko 19:00etan. Doako izen-ematea da, eta ateak irekita egongo dira iteresa duen edonorentzat, lekuak bete arte.

DATORREN ASTEARTEAN BAKARRIZKETA SAIOA, BEATRIZ EGIZABALEN ESKUTIK

Manifestazioa Andoainen, Azaroak 25aren harira

Manifestazioa egiteko deia luzatu du Andoaingo Mugimendu Feministak: ostiralean, 18:00tan, Zumean

Erredakzioa ANDOAIN

Ostiralean, kalera ateratzeko deia egin du Andoaingo Mugimendu Feministak, arratsaldeko 18:00etan egingo den manifestazioarekin bat egiteko. Zumea plazan hasiko da, eta Goikoplazan amaitu; bidean, herriko kaleak aldarrikapenez beteko dituzte herritarrek, mugimenduak pairatutako "kriminalizazio saiakera sistematikoa" nabarmentzeko, nahiz erasook neska gazteen, emakumeen eta sexu-genero disidenten "borroken zein bizitzaren kontra" instituzioak eta polizia egiten dituzten ahaleginak salatuz.

Ekintzez betetako eguna

Txapa Lantegia izango da Gazte Lokalean ostiralean bertan, arratsaldeko 17:30ean. Jarraian, omenaldia egingo zaie "Indarkeria matxistaren emakume biktimei eta bizirik atera direnei". Aipatutako azken hori Goikoplazan izango da, iluntzeko 19:00etan. Egunarekin amaitzeko, kontzertua emango du Anarik Bastero, 20:00etatik aurrera. Arazoaren 26an, larunbatarekin, autodefentsa feminista tailerra egingo da herriko Allurralde kiroldegian, goizeko 09:30etik hasi eta eguerdiko 15:00ak bitarte.

Irunberri elkartearen urteurrena

Pala txapelketarekin ekingo diote egitarauari. Izen ematea eta bazkarirako txartelak elkartearen bertan salgai

Erredakzioa ANDOAIN

"Irunberriren XXIV. urteurrena ospatzeko egitaraua antolatu dugu datorren asteetarako. Jende guztiarentzako jarduera ezberdinak izango ditugu, haur, gazte nahiz helduentzat. Gainera, Covid garaiaren ostean elkarteak urteetan bete dituen arlo ezberdinei dagokien jarraipena eman nahi die. Horrexegatik, aurtengo urteurrenako ospakizunari indar berezia eman nahi diogu".

Bazkarirako txartelak elkartearen bertan eskuratu behar dira.

Egitaraua

- Azaroak 26, larunbata: Pala txapelketa mixtoa. 10:00, Ikastolako frontoia.
- Azaroak 30, asteazkena: Ardo kata. 19:00, Irunberri.
- Abenduak 1, osteguna: Pintxopote berezia.
- Abenduak 3, larunbata: Elkartasun eguna: Kontzentrazioa Zumea plazan (12:00); Kalejira (12:30); Bazkaria (14:30); Mexikortxo (17:00); Malkogarriyak (19:00), DJ saioak (22:00).
- Abenduak 4, igandea: Txokolatea eta ipuin kontaketa. 17:00.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak June
June abenduaren 6an sei urte beteko ditu eta primeran ospatuko degu. Zorionak polita eta segi beti bezain irrifartsu eta alai. Asko maite zaitugu!



ANDOAIN
Zorionak Ekiñe
Ekiñe azaroaren 17an 13 urte! Zein azkar pasatzen den denbora señoirita. Muxu handi bat. Etxekoak.

Elikagaien bilketa Andoainen, azaroaren 25ean eta 26an

Andoain herriak bat egingo du Elikagaien Bankuak sortutako kanpaina solidarioarekin. Aurtengo, bi bilketa-gune egongo dira, BM-n eta Super Amaran. Bilketa azaroaren 25ean eta 26an egingo da bi supermerkatuetan, eta ohikoa denez, dohaintzarako prestatutako standean boluntarioak egongo dira poltsak banatuz, elikagaiak bilduz eta ordenatuz. Jarraian, eman daitezkeen elikagaien zerrenda: Arroza, pasta, lekaleak, esnea, galletak, olioak, kontserbak, azukrea, kakao disolbagarria eta haurrentzako elikagaiak.

BM eta Super Amarako bezeroek ere dirua eskudirutan emateko aukera izango dute, kutxatik pasatzean eman nahi duten zenbatekoa adieraziz. Kanpaina honetan parte hartuko duten Andoaingo boluntarioen taldetik, herritar guztiak animatu nahi dituzte parte hartzera, bakoitzak ahal duena emanaz. Elikagaiak erosiz, edo ekarpen ekonomikoa eginez.

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA
Azaroaren 18tik abenduaren 2ra



HITZEZ EKITEKO GARAIA IRITSI DA!

EUSKARÁLDIA

AZKEN FESTA

ABENDUAK 2, OSTIRALA

GOIKOPLAZA

18:00TAN HASITA

KARPA JARRIKO DUGU

**BEIETZ! ZELTIAR MUSIKA
LEBI ZEZEN SUZKOA
KLAAP DANTZA ESKOLA
EGAPE DANTZA TALDEA
ZOKKETAK
MERIENDA: MUFFINAK**

**Zatoz arratsalde gozoa
elkarrekin igarotzera!**

